



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Diligencia: para hacer constar que el presente documento ha sido aprobado por la Dirección Gerencia del Consorcio de Transportes de Bizkaia en fecha:

Eginbidea: Zera jasota gera dadin ondoren aipatzen den datan Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Zuzendaritza Nagusiak agiri hau onartu duela:

Doy fé.

Fede ematen dut.

Data/Fecha: Bilbao (n), 2013/11/11
Idazkari nagusia/El secretario general



Pliego de prescripciones técnicas para la contratación del "Suministro y apoyo técnico para la implantación y puesta en servicio del portal web del CTB"

- 1.- OBJETO.
- 2.- INTRODUCCIÓN.
- 3.- OBJETIVOS GENERALES.
- 4.- CONTENIDOS
- 5.- REQUERIMIENTOS FUNCIONALES Y TÉCNICOS
- 6.- APOYO A LA OBTENCIÓN DE DATOS, INFORMES, ESTADÍSTICAS, ETC.
- 7.- SOFTWARE, CÓDIGO FUENTE Y LENGUAJES DE PROGRAMACIÓN
- 8.- MEDIOS AUXILIARES
- 9.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR
- 10.- PLAZO
- 11.- PRESUPUESTO

1.- OBJETO DEL PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS PARTICULARES.

El presente Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares tiene por objeto definir y valorar las condiciones que se deben cumplir para el diseño, desarrollo, implantación, pruebas y puesta en servicio del portal web del Consorcio de Transportes de Bizkaia (en adelante CTB), así como para el apoyo y colaboración técnica que su evolución y su relación con los procesos de gestión de los títulos de transporte del CTB comporten.

"BGParen webgunea ezartzeko eta abiarazteko horniketa eta laguntza teknikoa" izeneko zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoen agiria

- 1.- XEDEA.
- 2.- HITZAURREA
- 3.- HELBURU OROKORRAK
- 4.- EDUKIAK
- 5.- ESKAKIZUN FUNTZIONALAK ETA TEKNIKOAK
- 6.- DATUAK, TXOSTENAK, ESTADISTIKAK ETA ABAR LORTZEKO LAGUNTZA
- 7.- SOFTWAREA, ITURBURU-KODEA ETA PROGRAMAZIO-LENGOIAK
- 8.- BALIABIDE OSAGARRIAK
- 9.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
- 10.- EPEA
- 11.- AURREKONTUA

1.- BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEKIN AGIRIAREN XEDEA.

Baldintza Tekniko Berezien Agiri honen xedea honako hau da: Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (hemendik aurrera BGP) webgunea diseinatu, garatu, ezarri, probatu eta abiarazteko bete behar diren baldintzak zehaztu eta baloratzea, eta haren bilakaerak zein BGPren garraio tituluak kudeatzeko prozesuekiko harremanak berekin dakartzaten laguntza eta lankidetzak teknikorako baldintzak finkatzea.



Como parte del servicio se incluye la entrega de los análisis, desarrollos informáticos, software de base, plataformas, fuentes, etc, que como consecuencia de la ejecución del mismo y en todos sus aspectos se generen.

Esta descripción tiene un carácter introductorio, siendo desarrollado en contenido y condicionantes a lo largo del documento.

2.- INTRODUCCIÓN

El CTB dispone de un portal web cuya dirección es www.cotrabi.com, que fue creada hace ya algún tiempo, razón por la que no tiene incorporados los procedimientos y herramientas existentes en el mercado, que proporcionen un servicio y unas prestaciones más acordes con las demandas de los usuarios.

Los contenidos de la web actual se agrupan en dos bloques principales:

- El primero comprende los siguientes apartados:
 - Consorcio de Transportes de Bizkaia: normativa, organización, Acuerdos Marco, trayectoria, informe anual (memoria) y perfil del contratante.
 - Metro Bilbao: línea 1, línea 2, red de Metro.
 - Coordinación Transporte Público: Estudio movilidad, sistema tarifario, red de transporte público, informes, Creditrans, Barik.

Zerbitzuaren zati gisa, ataria gauzatzearen ondorioz haren alde guztietan sortzen diren analisiak, garapen informatikoak, sistemako softwarea, plataformak, letra-tipoak eta abar emango dira.

Azalpen hau hitzaurrea baino ez da; izan ere, edukia eta baldintzak dokumentuan zehar garatuko dira.

2.- HITZAURREA

BGPak webgune bat du: www.cotrabi.com. Gune hori aspaldi sortu zen, eta horregatik ez ditu gehituta merkatuan dauden prozedurak eta tresnak, erabiltzaileen eskaerekin neurri handiagoan bat datozen zerbitzua eta prestazioak ematen dituztenak.

Egungo webgunearen edukiak bi bloke nagusitan multzokatzen dira:

- Lehenengoak honako atal hauek ditu:
 - Bizkaiko Garraio Partzuergoa: araudia, antolaketa, esparru-akordioak, ibilbidea, urteko txostena (memoria) eta kontratugilearen profila.
 - Metro Bilbao: 1. linea, 2. linea, metro sarea.
 - Garraio publikoaren koordinazioa: mugikortasunari buruzko azterlana, tarifen sistema, garraio publikoaren sarea, txostenak, Creditrans, Barik.



- El segundo incluye:
 - Simulación
 - Novedades
 - Mail
 - Enlaces

La descripción pormenorizada de cada epígrafe puede obtenerse accediendo a la página indicada.

Puede apreciarse que, al margen de las particularidades propias que definen al Ente, el CTB pretende aportar una visión global de los elementos más significativos del transporte público de Bizkaia; sistema tarifario y zonal, precios y tarifas, estadísticas, informes, etc.

Asimismo, se enfatiza sobre los billetes y títulos de transporte emitidos y gestionados por el Consorcio.

Por otra parte, la implantación y puesta en servicio de la tarjeta Barik obliga a adecuar la web, a fin de que sus usuarios accedan a la consulta de los datos e informaciones producidas por la utilización de la misma.

En el mismo sentido, se pretende ofrecer un canal de comunicación con los usuarios, de manera interactiva y colaborativa, a través de la cual se recojan y atiendan las dudas, solicitudes, quejas, reclamaciones, sugerencias, etc. que puedan presentarse.

Estos dos últimos aspectos requieren mantener permanentemente actualizadas las bases de

- Bigarrenak honako atal hauek ditu:
 - Simulazioa
 - Berriak
 - Helbide elektronikoa
 - Loturak

Epigrafe bakoitzaren azalpen xehakaturia adierazitako webgunean sartuz eskuratu daiteke.

Adierazi behar da, erakundea zehazten duten berezitasun propioak alde batera utzita, BGPak Bizkaiko garraio publikoaren elementu adierazgarrienen ikuspegi orokorra eman nahi duela: tarifa eta eremu sistemak, prezioak eta tarifak, estatistikak, txostenak, etab.

Halaber, Partzuergoak eman eta kudeatzen dituen txartelak eta tituluak nabarmenduko dira.

Horrez gain, Barik txartela ezartzeak eta abiarazteak webgunea egokitzea dakar, erabiltzaileek txartel horren erabilerak sorrarazitako datuak eta informazioak eskuratu ahal izan dituzten.

Alde horretatik, erabiltzaileekiko komunikazio kanal elkarreragilea eta kolaboratzailea eskaini nahi da. Horren bidez, aurkez daitezkeen zalantzak, eskaerak, kekek, erreklamazioak, iradokizunak eta abar bildu eta erantzungo dira.

Azken bi alde horiek landan egindako transakzioak biltzen dituzten datu-baseak etengabe egu-



datos en las que se recogen las transacciones originadas en campo, así como, la elaboración de informes o estadísticas no programadas, extracción de datos puntual, agrupación o consolidación de los mismos, según criterios específicos, rastreo en base a determinados parámetros o atributos, etc. lo que da lugar a la necesidad de procesos y tratamientos informáticos, que también forman parte del servicio a prestar.

3. OBJETIVOS GENERALES DEL PROYECTO

El objetivo principal es la creación de una plataforma de gestión de contenidos que sirva de instrumento digital de la imagen y servicios del CTB, orientados a transmitir los aspectos más relevantes del transporte público de Bizkaia, así como a posibilitar el acceso de los usuarios a los datos de sus tarjetas y otras prestaciones inherentes al transporte público de viajeros en general.

Se enumeran los objetivos a alcanzar, si bien se considera una relación de mínimos, pudiendo el ofertante proponer y ampliar otros que el CTB aceptará o no según su criterio:

- Disponer de un nuevo diseño e imagen moderna, dinámica y accesible para todos y todas, ofreciendo una idea clara sobre el acceso a toda la información del transporte en Bizkaia.
- Disponer de funcionalidades interactivas y colaborativas, en línea con los principios de la web 2.0

neratuta egotea dakarte, baita programatu gabeko txostenak edo estatistikak prestatzea, datuen erauzketa zehatza, horiek multzokatzea edo finkatzea (berariazko irizpideen arabera), eta zenbait parametro edo atributu kontuan hartuta arakatzea ere, besteak beste. Horrek prozesu eta tratamendu informatikoak garatu beharra dakar, eman beharreko zerbitzuaren zati ere badela.

3. PROIEKTUAREN HELBURU OROKORRAK

Helburu nagusia edukiak kudeatzeko plataforma sortzea da, BGParen irudiaren eta zerbitzuen tresna digital gisa erabiliko dena. Eduki horiek Bizkaiko garraio publikoaren alde garrantzitsuenak jakinarazteko eta erabiltzaileek beren txartelei buruzko datuak eta bidaiarien garraio publiko orokorrari atxikitako beste prestazio batzuk eskuratzeko dira.

Lortu beharreko helburuak zerrendatu dira, nahiz eta gutxienezkoen zerrendatzat jotzen den. Gauzak horrela, eskaintzaileak beste batzuk proposatu eta gehitu ahalko ditu, BGPak bere irizpidearen arabera onartu edo ezetsiko dituenak:

- Diseinu berria eta irudi modernoa, dinamikoa eta guztientzako eskuragarria dena izatea, Bizkaian garraioaren informazio osoa eskuratzeari buruzko ideia argia eskainita.
- Funtzionalitate interaktiboak eta kolaboratzaileak izatea, 2.0 webgunearen printzipioekin bat etorrira.



- Ser una herramienta práctica para su público objetivo.
- Disponer de una arquitectura nueva, funcionalidades más dinámicas y avanzadas, un grafismo modernizado y una navegación según los hábitos actuales de los internautas.
- Basarse en una herramienta de gestión de contenidos (CMS).
- Ser un sitio web accesible.
- Disponer de funcionalidades de obtención de estadísticas de uso interno.
- Disponer de una gestión rápida y eficaz del perfil del contratante y para la zona de usuarios registrados.
- Facilitar a los usuarios de la tarjeta Barik el acceso a los datos de las operaciones realizadas con la misma.
- Habilitar un canal de comunicación, email, redes sociales, etc. al objeto de recabar las opiniones, quejas, reclamaciones, solicitudes, sugerencias, etc. que los usuarios demanden, así como, su respuesta y resolución.
- Analizar, realizar los desarrollos precisos y obtener los datos estadísticos, informes, documentos, etc. que se requieran ante las demandas presentadas por los usuarios u otros peticionarios.
- Hartzaille objektiboentzako tresna praktikoa izatea.
- Arkitektura berria, funtzionalitate dinamikokoak eta aurreratuak, grafismo modernizatua eta internauten egungo ohituren araberako nabigazioa izatea.
- Edukiak kudeatzeko tresnan oinarritzea (CMS).
- Webgune eskuragarria izatea.
- Barne-erabilerako estatistikak lortzeko funtzionalitateak izatea.
- Kontratugilearen profilaren eta erregistratutako erabiltzaileen eremuaren kudeaketa azkarra eta eraginkorra izatea.
- Barik txartelaren erabiltzaileei txartelaren bidez egindako eragiketen datuak eskuratzen laguntzea.
- Komunikazio kanala, helbide elektronikoa, sare sozialak eta abar prestatzea, erabiltzaileek egiten dituzten iritziak, kexak, erreklamazioak, eskaerak, iradokizunak eta abar bildu, erantzun eta ebazteko asmoz.
- Erabiltzaileek edo beste pertsona batzuek aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, aztertu, beharrezko garapenak egin, eta datu estatistikoak, txostenak, dokumentuak eta abar eskuratzea.



4. CONTENIDOS DEL PORTAL

Los contenidos mínimos que debe contemplar el nuevo portal son los actualmente existentes, siendo imprescindibles los referentes al CTB como Institución, indicados en la página vigente como “Consortio de Transportes de Bizkaia” y “Coordinación del Transporte Público”.

Asimismo, el adjudicatario deberá integrar en el nuevo portal, parcialmente o en su totalidad, según lo que determine el CTB, las páginas relativas a Creditrans, Barik, etc. adecuándolas a la nueva imagen que el CTB determine.

Los contenidos del portal serán trilingües, euskera, castellano e inglés.

Los ofertantes deberán presentar una o varias propuestas del nuevo portal en los que se explicará la imagen, contenidos, navegación, enlaces, etc., así como aquellos otros aspectos técnicos o de otra índole que consideren pertinentes.

5. REQUERIMIENTOS FUNCIONALES Y TÉCNICOS

5.1. Requerimientos funcionales

- Cumplir con la norma W3C de accesibilidad, considerando explícitamente las necesidades de personas con dificultades visuales, invidentes, sordas o con discapacidad motriz.

4. ATARIAREN EDUKIAK

Atari berriak izan behar dituen gutxieneko edukiak gaur egun daudenak dira. Dena den, ezinbestekoak dira, erakundea den aldetik, BGPari lotutakoak, indarreko webgunean “Bizkaiko Garraio Partzuergoa” eta “Garraio Publikoaren Koordinazioa” gisa agertzen direnak.

Halaber, esleipendunak Creditrans, Barik eta abarri buruzko webguneak gehitu beharko ditu atari berriari zati batean edo osorik, BGPak zehazten duenaren arabera, eta BGP zehaztutako irudi berrira egokituko ditu.

Atariaren edukiak hiru hizkuntzakoak izango dira: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Eskaintzaileek atari berrirako proposamen bat edo batzuk aurkeztu beharko dituzte, eta horietan irudia, edukiak, nabigazioa, loturak eta abar zehaztuko dira, baita egokitzat jotzen diren beste alde tekniko edo orokor batzuk ere.

5. ESKAKIZUN FUNTZIONALAK ETA TEKNIKOAK

5.1. Eskakizun funtzionalak

- Eskuragarritasunari buruzko W3C araua betetzea, ikus arazoak dituzten pertsonen, itsuen, gorren edo mugimendu minusbaliotasuna dutenen beharrak beren-beregi kontuan hartuta.



- El back-office (CMS) debe permitir crear un portal multisitios y multilingüe. El sitio web albergará su contenido en castellano, inglés y euskera.
- El administrador del sitio podrá acceder al taggage de las páginas para modificarlo si es necesario.
- Multidispositivo.
- Orientándose hacia el SEO/SMM (Optimización para Motores de Búsqueda/ Marketing en Medios Sociales).
- Incorporación de la Social Media tanto para la promoción en este medio, como para la participación.
- Administración y gestión de contenidos eficaz y usable, adaptada a las necesidades del CTB.
- Incorporación de los servicios de promoción y ayuda como FAQ y planificador de viaje.
- Diseño y puesta en funcionamiento de la página de usuario de Barik.
- “Back-office” (CMS) delakoak erabilera eta hizkuntza anitzeko ataria sortzea ahalbidetu behar du. Webguneak edukia gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz izango du.
- Webgunearen administratzailea orrien “taggage”ra sartu ahalko da, beharrezkoa bada hori aldatzeko.
- Gailu anitzak.
- SEO/SMMrantz (Bilaketa tresnetarako optimizazioa / Ingurune sozialetako marketina) abiatzea.
- “Social Media” delakoa gehitzea ingurune horretan sustatzeko zein parte hartzeko.
- Edukiak eraginkortasunez eta erabilgarritasunez administratu eta kudeatzea, BGParen beharretara egokituta.
- Sustapen eta laguntza zerbitzuak gehitzea, hala nola FAQ eta bidaia planifikatzailea.
- Barik txartelaren erabiltzailearen webgunea diseinatu eta abiaraztea.

5.2. Requerimientos técnicos

- Deberá ser compatible con los siguientes navegadores: Internet Explorer 6 o superior, Mozilla Firefox, Opera Browser, Apple Safari, Google Chrome.

5.2. Eskakizun teknikoak

- Hurrengo arakatzailleekin bateragarria izan beharko da: Internet Explorer 6 edo ondokoa, Mozilla Firefox, Opera Browser, Apple Safari, Google Chrome.



- El formato de visualización será de 1024*768 pixeles o superiores.
- No requerirá el uso de plugins, con excepción de los reproductores multimedia habituales.
- Bistaratze formatua 1024*768 pixelekoa edo handiagoa izango da.
- Ez du beharko pluginen erabilera, ohiko multimedia erreproduzigailuak izan ezik.

5.3. Herramienta de gestión de contenidos

En función de los requerimientos indicados, los ofertantes propondrán la herramienta de gestión de contenidos de software libre más adecuada conforme a los mismos, teniendo en cuenta que debe poder ofrecer los servicios que los diversos colectivos que atiende el CTB, usuarios, proveedores, Instituciones, etc. le demanden.

En base a lo cual se explicitarán las razones por las que se considera adecuada para el CTB la solución propuesta. En cualquier caso, el CTB adoptará la decisión última que estime conveniente para sus intereses.

5.4. Cumplimiento de la LOPD

El planteamiento del CTB con respecto a su página web es que sea un espacio colaborativo y participativo de las redes sociales, lo que se traduce en un tratamiento de información y de datos personales, lo que conlleva necesariamente, dado el carácter de Administración de la Institución, un cumplimiento riguroso de la LOPD y de propiedad de los contenidos publicados.

En base a lo cual es preciso que los planteamientos y soluciones cumplan con los requerimientos de la normativa vigente, en cada uno

5.3. Edukiak kudeatzeko tresna

Adierazitako eskakizunen arabera, eskaintzaileek haien ustez egokiena den software libreko edukiak kudeatzeko tresna proposatuko dute, BGPak artatzen dituen talde guztiek (erabiltzaileak, hornitzaileak erakundeak eta abar) eskatzen dituzten zerbitzuak eskaini behar dituela kontuan hartuta.

Hori oinarri hartuta, zergatik jotzen den BGPearako egokitzat proposatutako irtenbidea azalduko da. Nolanahi ere, BGPak bere interesetarako komenigarritzat jotzen duen erabakia hartuko du.

5.4. DPBL betetzea

BGPak honako planteamendu hau du bere webguneari dagokionez: gune kolaboratzailea eta parte-hartzailea izatea sare sozialetan. Horrek informazioaren eta datu pertsonalen tratamendua dakar, eta ezinbestean, erakundeak administrazioaren izaera duenez, argitaratutako edukien DPBL eta jabetza zorrotz bete beharko dira.

Horren arabera, atarian argitaratzen diren alde eta eduki guztiei dagokienez, indarreko araudien eskakizunak betetzen dituzten planteamen-



de los aspectos y contenidos que se publiquen en el portal.

6. APOYO A LA OBTENCIÓN DE DATOS, INFORMES, ESTADÍSTICAS, ETC. NO PROGRAMADOS O COYUNTURALES.

Una de las prestaciones del portal que el CTB considera de especial relevancia, es la consulta de los usuarios a las operaciones realizadas con la tarjeta Barik.

Las transacciones efectuadas en la red de transporte por cualquier tarjeta Barik son enviadas por los Operadores al sistema central de CTB (SAGB), el cual las procesa y almacena en sus bases de datos.

Esta integración de las operaciones de la tarjeta en el SAGB es lo que le permite acceder al usuario a las mismas a través del portal, el cual debe ofrecer diversas posibilidades de consulta y/u obtención de informes; entre fechas, por tipo de operación, tarjetas vinculadas, etc.

No obstante, con bastante frecuencia y de forma imprevista, se solicitan, bien sea por particulares u otras Entidades u Organismos, informes, estadísticas, datos agregados, etc., que requieren explotaciones específicas de las bases de datos del SAGB.

El adjudicatario deberá prestar apoyo al CTB para la ejecución de estos trabajos, consistente en el análisis, programación, pruebas, ejecución y documentación de los desarrollos informáticos necesarios.

Se requieren conocimientos acreditados de manejo de Oracle, SQL Server, Visual Basic y

duak eta irtenbideak beharrezkoak dira.

6. PROGRAMATU GABEKO EDO EGOERAREN ARABERAKO DATUAK, TXOSTENAK, ESTADÍSTIKAK ETA ABAR LORTZEKO LAGUNTZA

BGParen ustez berebiziko garrantzia duen atariaren prestazioetako bat erabiltzaileek Barik txartelaren bidez egindako eragiketen kontsultada.

Operadoreek edozein Barik txartelen bidez garraino sarean egindako transakzioak BGParen sistema zentralera (SAGB) bidaltzen dituzte, eta horrek eragiketok prozesatu, eta bere datu-baseetan biltegitzen ditu.

SAGBn txartelaren eragiketak gehitzeari esker, erabiltzaileak horiek eskuratu ditzake atariaren bidez. Hori dela eta, atariak kontsultatzeko eta/edo txostenak lortzeko hainbat aukera eskaini behar ditu, adibidez, daten arteko kontsultak, eragiketa motaren arabera, lotutako txartelak eta abar.

Hala eta guztiz ere, sarritan eta ustekabeen partikularrek edo bestelako entitate edo erakundeek txostenak, estatistikak, datu erantsiak eta abar eskatzen dituzte, SAGBren datu-baseen berriazko ustiapenak behar dituztenak.

Esleipendunak BGPari laguntza eman beharko dio lan horiek gauzatzeko, beharrezko garapen informatikoen analisia, programazioa, probak, egikaritzapena eta dokumentazioa barne hartzen dituena.

Oracle, SQL Server, Visual Basic eta Adobe Photoshop aplikazioen erabilerari buruzko jakin-



Adobe Photoshop. (Criterio de solvencia).

Así mismo, se entienden convenientes los conocimientos de Excel y Acces y el manejo de programas de diseño gráfico Corel Draw, Macromedia y Freehand.

Se estima una ocupación de unas 1.500 h/año, no superando en ningún caso las 1.775 h para un plazo de 12 meses, aunque solamente se facturarán las horas efectivas de trabajo.

Dichos trabajos serán debidamente documentados y entregados a CTB.

7. SOFTWARE, CÓDIGO FUENTE Y LENGUAJES DE PROGRAMACIÓN.

El Software desarrollado al amparo del presente contrato será propiedad de CTB.

El adjudicatario deberá entregar a CTB la totalidad del código fuente correspondiente al presente contrato, debidamente documentado, así como cualquier protocolo de comunicaciones con cualquier elemento del sistema, si fuera necesario su empleo.

8. MEDIOS AUXILIARES.

El adjudicatario dispondrá del equipamiento y herramientas software necesarias para la correcta realización del proyecto, así como de un PC portátil con suficiente potencia y capacidad para programar y probar los desarrollos informáticos requeridos.

tza egiazatuak behar dira (kaudimen irizpidea).

Halaber, Excel eta Acces programen jakintzak eta diseinu grafikoko Corel Draw, Macromedia eta Freehand programen erabileraren gaineko jakintzak komenigarritzat hartzen dira.

1.500 orduko urteko okupazioa kalkulatu da. Hala ere, ez dira inoiz 1.775 ordu baino gehiago emango 12 hilabeteko eperako, nahiz eta benetako lanorduak baino ez diren fakturatuko.

Lan horiek behar bezala dokumentatu eta BGPari emango zaizkio.

7. SOFTWAREA, ITURBURU-KODEA ETA PROGRAMAZIO-LENGOAIK

Kontratu honen babesean garatutako softwarea BGParena izango da.

Esleipendunak kontratu honi dagokion iturburu-kode osoa eman beharko dio BGPari, behar bezala dokumentatuta, baita sistemaren edozein elementurekiko edozein komunikazio protokolo ere, hori erabili behar bada.

8. BALIABIDE OSAGARRIAK

Esleipendunak proiektua zuzen egiteko behar diren ekipamendua eta software tresnak izango ditu, baita eskatutako garapen informatikoak programatzeko eta probatzeko behar bezalako indarra eta gaitasuna dituen ordenagailu eramangarria ere.



9. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR POR EL OFERTANTE.

La oferta se basará en las condiciones relacionadas en el presente pliego y la presentación de la oferta impondrá la aceptación expresa de las condiciones recogidas en el mismo y el de Cláusulas Administrativas Particulares.

Con objeto de hacer homogéneas las propuestas que se presenten, se plantea el siguiente índice mínimo de contenidos.

9.1.- Memoria técnica (sobre C)

1. Descripción técnica de detalle de la solución o alternativas propuestas para el portal web. Software de base y licencias.
2. Metodología de trabajo.
3. Planificación detallada
4. Plan de implantación/sustitución y convivencia con explotación existente.
5. Equipo de trabajo y organigrama.
6. Mantenimiento y revisión del producto entregado.
7. Alcance del servicio en el periodo de garantía.
8. Listado y calendario de entregas de documentación.
9. Anejos: cualquier otra documentación

9. ESKAINTZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza agiri honetan jasotako baldintzetan oinarrituko da. Eskaintza aurkezteak berekin dakar aipatutako baldintzak eta administrazioari dagozkionak beren-beregi onartzea.

Aurkeztutako proposamenak homogéneos izan daitezten, edukien honako gutxieneko aurkibide hau azaldu da.

9.1.- Memoria tekniko (C gutun-azala)

1. Webgunerako proposatutako irtenbidearen edo aukeren xehetasunaren azalpen tekniko. Sistemako softwarea eta lizentziak.
2. Lan-metodologia.
3. Plangintza zehatza.
4. Ezartzeko/ordezteko eta dagoen ustiapenarekin batera egoteko plana.
5. Lantaldea eta organigrama.
6. Emandako produktua mantendu eta berrikustea.
7. Zerbitzuaren norainokoa bermealdian.
8. Dokumentazioaren emateen zerrenda eta egutegia.
9. Eranskinak: lizitatzailleak emandako



aportada por el licitante.

9.2.- Oferta económica (sobre B)

El ofertante deberá incluir:

- Precio de la implantación y puesta en servicio del portal web.
- Precio/hora y coste total del apoyo técnico a desarrollos informáticos para un máximo de 1.775 h/año.

10. PLAZO

Se establecen dos hitos en la ejecución del proyecto:

- Implantación, puesta en servicio y entrega del portal web. Se estiman 4 meses.
- Apoyo técnico a los desarrollos informáticos. 12 meses.

11. PRESUPUESTO

El Presupuesto de licitación y valor estimado es el siguiente

beste edozein dokumentazio.

9.2.- Eskaintza ekonomikoa (B gutun-azala)

Eskaintzaileak honako hauek gehitu beharko ditu:

- Webgunea ezartzeko eta abiarazteko prezioa.
- Orduko prezioa eta garapen informatikoetarako laguntza teknikoaren (1.775 ordu urteko, gehienez) kostu osoa.

10. EPEA

Bi une garrantzitsu egongo dira proiektua gauzatzean:

- Webgunea ezarri, abiarazi eta ematea: 4 hilabete kalkulatu dira.
- Garapen informatikoetarako laguntza teknikoa: 12 hilabete.

11. AURREKONTUA

Lizitazio aurrekontua eta balio zenbatetsia honako hauek dira:



LIZITAZIO AURREKONTUA PRESUPUESTO DE LICITACIÓN	99.000,00 €
BEZ IVA 21%	20.790,00 €
GUZTIRA TOTAL	119.790,00 €
AURREIKUSITAKO BALIOA BEZ KANPO VALOR ESTIMADO –IVA EXCLUIDO-	119.790,00 €

Anualidad/es (IVA incluido):

Urterokoa/k (BEZ barne):

Año/Urtea	Importe anualidad/Urterokoaren Zenbatekoa
2013	78.675,99 €
2014	41.114,01 €

La facturación se realizará de la siguiente manera:

Fakturazioa honela egingo da:

- El 35% tras la implantación, puesta en servicio y entrega del portal web.
- El resto, en certificaciones mensuales, según el apoyo técnico realizado en dicho periodo.
- %35 webgunea ezarri, abiarazi eta eman ondoren.
- Gainerakoa hileko egiaztagirietan, aldi horretan egindako laguntza teknikoaren arabera.

Junio de 2013

2013ko Ekaina